



Slavoj Žižek Ezkerreko pentsamendu berria

ERREPORTAJEA

• Gorka Bereziartua

IRITZIAK

• Markos Zapiain • Joseba Zulaika • Jon Jimenez eta Andoni Olariaga

Esloveniako haize gorria

Nor da gizon bizardun hori, begi-zuloak, edonola jantzita, imintzioka, hizketan, hizketan, hizketan, Marx, Lacan, Hegel eta Kant; Leninetik Maora, Mozartetik Laibachera, eta dadoa berriz airera. Gizon hori, Slavoj Zizek da, gaur egungo ezkerreko pentsalaririk probokatzaile, fresko eta ikonoklastenatariko bat. “Teoria kulturalaren Elvis Presley” deitu zion *The Chronicle of Higher Education* egunkariak. Oxford Unibertsitateko Terry Eagletonek berriz, “hainbat hamarkadatan Europan sortu den psikoanaliaren, eta teoria kulturalaren erakusgarri itzelena” zela esan zuen. Eta Iruñeko Baluartean izango dugu ekainaren 10ean, Arkitektura eta Gizartea kongresuan.

■ Gorka Bereziartua

“Slavoj Zizekek sudurra behin eta berriz ukitu eta kapitalismoaren krimenen zerrenda baino luzeagoa den koka lerro bat sudurreratu duela pentsa lezake norbaitek. Ideia batzuk toxikoak diren bezala beste batzuk narkotikoak dira. Esaterako, Slavoj Zizekek sudurra ukitu ondoren aipaturiko hainbat. Aspaldian hiltzat emanak gehienak eta Esloveniako hartz gorriak berpiztuak. Michael Jacksonen bideo batean bezala zonbiak hasi dira hilobietatik irteten. Dantzan jarri dituen doinua ez dator Neverlandetik, Balkanetatik baizik.

Slavoj Zizekek sudurra ukitu eta dio: Porca Miseria!”.

Xabier Montoiaren hitzak dira, *Slavoj Zizeken sudurra* poematik atereak. Azkenaldian, esloveniarraren izena askoren ahotan dabil gurean; politikaz, kulturaz, gizarteaz eztabaidatzean ezinbesteko erreferentzia ari da bihurtzen. Modako pentsalaria? Beharbada. Angel Errok ez oso aspaldiko artikulua batean (*Hau mundu zonbi hau*, ARGIA, 2010-I-31) ironiaz ukitu zuen gaia: “Zuk ere Zizek aipatu behar duzu? Dagoeneko ez gaude inon libre”. Baina, modak moda, gauza bat argi dago: Zizeken ideiek ez dutela inor epel uzten. Gaur egungo ezkerreko pentsalarien artean nabarmenatarikoa da.

1949an Ljubljanan jaio zen, aita ekonomialaria, amak kontuak eramaten zituen Yugoslaviako estatuarena zen enpresa batean. Familia, haurra izan ondoren, hiriburutik lekutu zen; kostaldeko herri bati lotua dago Zizeken gaztaroa: Portoroz, “arrosen portua”, masa-turismoa erakartzen hasia zen 1960ko hamarkadan, eta Slavoj txikia hazten zihoan abiadura berean sortu ziren lurretik hotelak eta apartamentuak –gaur egun “betoizko portua” ere esaten diote–.

1967an, 18 urterekin, Ljubljana Unibertsitatean hasi zen filosofia eta soziologia ikasten. Baina Slavoj Zizeken sudurra ez zen liburu artean bakarrik ibiltzekoa: 1970eko hamarkadan Yugoslavia bizitzen ari zen nolabaiteko liberalizazioak eragin handia izan zuen unibertsitario gazteengan. Zizek intelektual disidentearen arteko egingo da, Tine Hribar eta Ivo Urbancic filosofo Heideggeriarrena, besteak beste; eta aldizkari alternatiboetan artikulua publikatzen hasiko da. Ez du, hala ere, ibilbide akademikoa bazterrean utziko: 22 urte bete ditueneko Ljubljana Unibertsitatean ikerlari-laguntzailea da.

Zizeken bizitza, ordea, ez da ardo-eztitan horditu den pertsonarena. 1973an finitu ziren zabaltasun politikoak Eslovenian; Josip Broz Titok eta Stane



ANDY MIAH CC-BY-SA

Dolancek atzaparkada bakarrarekin kendu zituzten gobernutik ordura arteko lider erreformistak, eta horren eragina akademiaraino iritsi zen. “Ez-marxista” zela esanda, Žizeken tesia *–Estrukturalismo frantsesaren garrantzia teoriko eta praktikoa–* baztertu zuten; lana galdu zuen; eta pentsalariak, ostikoa oraindik bero, egitekorik gabe, soldaduskarako bidea hartu zuen. Filosofo alemanak itzuliz eta buruzagi komunistentzat diskurtsoak idatziz atera zituen eltzetik babak –disidente kutsua ez zen, paradoxikoki, bigarren lan horretarako oztipo izan–. Gainera, Jacques Lacan psikoanalistaren teorian lanean hasi zen, besteak beste Mladen Dolarrekin eta Renata Saleclekin –Žizeken bigarren emaztea– batera. *Problem!* agerkarian azalduko dira garai horretako Žizeken testuak: existitzen ez diren liburuen kritikak, baita berak idatzitako obren aurkako artikulu gupidagabeak ere.

1979raino luzatuko da basamortuko zeharkaldia, Esloveniako Zentro Marxistan administrazio-lanpostu bat eskuratuko duen arte. Ljubljana Unibertsitatera ere itzuliko da, Soziologia Institutura, Urbancicen ikerketetan laguntzaile. Eta 1980ko hamarraldian sartuta, Žizek mundu guztiaren ahotan egoten hasiko da bere herrialdean. *Mladina* gazte kazetan artikulu kritikoak idatziko ditu Titoren erregimenaren kontra

–herrialdearen militarizazioa salatuko du, bereziki–, eta gizarte zibileko mugimenduetan parte hartuko du. Engaiatze politiko horren emaitza 1990eko hauteskundeetan etorriko da, Esloveniako Errepublikako Presidente izateko hautagai bihurtuko denean.

Marx tamagotchiekin jolasean Asterionen etxean

Ez zituen hauteskundeak irabazi. Eta, edonola, hautagaitza aurkeztu zuenerako nazioartean bestelako arrazoiengatik bazen ezaguna. 1989an argitaratu zen *The Sublime Object of Ideology* (Ideologiaren Objektu Sublimea) liburua ingelesez. Egileak berak sarreran aitutzen zuenez, hiru helburu nagusiko obra zen: Lacanen psikoanaliaren funtsezko kontzeptuak ulertzen laguntzea, haren lana esparru post-estrukturalistan kokatzen zutenen kontra (“Lacanen teoria, beharbada, ilustrazioaren gaur egungo bertsio erradikalena da”); Hegelen dialektika berrirakurtzea Lacan oinarri hartuta; eta ideologiaren teoriari ekarria egitea, hainbat gai klasiko –“merkantziaren fetitxismoa” bezalako kontzeptu marxistak kasu– bestelako betaurrekoekin ikusten lagunduz, bide batez kontzeptu lacaniar batzuk ideologiaren teoriara hurbilduz –“*point de capiton*” delakoa, objektu sublimea...–.



Astra Taylorrek 2005ean zuzendutako *Zizek!* dokumentalaren afixa da goikoa. Filosofoarekin izandako hainbat elkarrizketa biltzen ditu, esloveniarraren izaera berezia nabarmentzen dutenak.

Horrela irakurrita, batek pentsa dezake liburuak “zaila” behar duela izan, ulertezina aipatutako pentsalariez eta korronteez oinarritzko formazioa eduki ezean. Zizekek, ordea, beti asmatzen du menua espezia egokiekin nahasten, platera mokofinentzako bakarrik izan ez dadin. Liburu horretan, goi mailako eztabaidak mahai gainean jartzeko, ez zuen problemarik izan txistek¹, pop kulturako erreferentziak eta nobela ezagunen berrirakurketa ideologikoak –Umberto Ecoen *Il nome della rosa* kasusartzeko. Estilo horretan sakondu du geroztik, eta ez da arraroa haren liburuetan Michael Jackson, tamagotchiak edota *Matrix* filma agertzea, landu

nahi dituen teoriak azaltzeko adibide gisa. Zizekek puskatu egiten du hizkera teorikoaren eta egunero-ko bizitzaren arteko muga, metahizkuntza berri bat sortuz. Eta horregatik, ez ditu ohiko saiakerak idazten. Ernesto Laclauk *The Sublime Object of Ideology* liburuari egindako hitzaurrean ongi nabarmendu zuen hori: “Zalantzarik gabe, hau ez da liburu bat zentzu klasikoan; erran nahi baita, egitura sistematiko bat; aurretik pentsatutako plan bat garatuz egindako arrazoiketa. Ez da saiakera bilduma ere, non saio bakoitzak produktu bukatu bat osatzen duen (...) Interbentzio teoriko sorta da, batzuek besteak argitzen dituzte, ez arrazoiketa baten *progresioaren* baitan, testuinguru diskurtsibo diferenteetan argudio bera *errepikatuz* baizik”. Jarrera konstantea da haren bibliografian: hartzen duzu Zizeken liburu bat, eta tituluak gai bat iradokitzen duen arren, Jorge Luis Borgesen *Asterionen etxea* bezalakoa da obra; ateak infinituak dira; kontzeptuz, erreferentziak eta ideiak beterik daude korridoreak.

Ideologia eta arrazoi zinikoa

Idazkera horrek badu, ordea, bere ifrentzia: zaila egiten da Zizeken *corpus* teorikoa nondik nora doan zehaztea; gai beraren inguruan iritzi arras diferenteak eman izan ditu, baita horregatik kritikak jaso ere. Esloveniarrak arrazoi horiei aurre egiteko dio, ez dela filosofoaren lana Beste Nagusiaren modura jardutea, guri mundua nolakoa den esanez; filosofoak geure aurreiritzi ideologikoei desafio egin behar diela.

Eta zeregin horretan dihardu. Berbarako, lehen aipaturiko 1989ko liburu martxan jartzeko Zizekek Karl Marxen lana berrirakurtzera gonbidatzen gaitu. Alemaniarraren “ideologia” kontzeptuaz bestelako ikuspegia garatzen laguntzen dute lehen orriek. Marxek ideologia formulatzeko “beraiek ez dakite, baina egiten dute” esaldia erabili zuen. Beraz, pertsonen ideia faltsuak sinestaraztea zen ideologia, *Kapitalaren* egilearentzat. Definizio horretatik abiatuta, ideologia kritikatzeko aski da herritarrei erakustea ideia faltsu horien atzean ezkututzen den egia. Baina Zizekek dioenez, kontzeptua aski kritikagarria da gaur egun. Batetik, ideia faltsuen atzean “egia” teoriko bat auresuposatzen duelako; bestetik, egungo bizimodu soziopolitikoak ulertzeko garrantzi gutxiko tresna delako –merkatuak, burokrazia pribatu eta publikoek bigarren planoan utzi

¹Honakoa, adibidez: “Arte erakusketa Moskun. Koadro batean Nadeshka Krupskaya azaltzen da, Leninen emaztea, Komsomol-eko kide gazte batekin ohean. Koadroaren titulua da Lenin Varsovian. Bisitari batek, harrituta, gidariari galdetzen dio: ‘Baina, non dago Lenin?’. Gidariak, lasai, duin, erantzuten du: ‘Lenin Varsovian dago’”.

dute–; azkenik, egungo subjektuek afera politikoe-kin jarrera zinikoa hartzen dutelako. Peter Sloterdijken *Kritik der zynischen Vernunft* (Arrazoi Zinikoari Kritika) liburuan oinarrituta, Zizekek azaltzen du zinikoa baduela maskara ideologikoaren eta errealtatearen arteko distantziaren berri, baina hala ere, maskara aukeratzen duela. Eta horregatik, Michael Moorek *Bowling for Columbine* egin arren, AEBetako herritarrek ez dira masan mobilizatzen arma-industriaren kontra; injustizia gordinena ere irensten du egungo subjektu zinikoa, hanburgesa jaten ari denaren lasaitasun beraz. Marxen hitzak berridazteko ordua da: “Beraiek ederki dakite zer egiten duten, baina hala ere, egin egiten dute”. Eta hori kontuan izanda, ideologia modu tradiziona-lean kritikatzeko denbora galtzea da. Mundu post-ideologikoan gaude, akaso?

“Adorno ere iritsi zen ondorio horretara, ondorengo premisatik abiatuta: ideologia ez dela, zorrotz hitz eginda, egia eskatzen duen sistema bat besterik, hau da, ez dela gezur huts bat, egia balitz bezala bizitzen den gezurra baizik, serio hartua izan nahi duen gezurra. Ideologia totalitarioak jada ez dauka asmo hori. Ez du serio hartua izan nahi (...) Haren nagusitasuna ziurtatuta dago, ez egiaren balioagatik, ezpada indarkeria estraideologikoatik eta irabazi promesengatik”².

Ez, Zizekek ez du uste post-ideologian bizi garenik. Arrazoi zinikoa garroak ez dira iritsi oraindik fantasia ideologikoaren esparrura; eta ideologiak fantasia horixe erabiltzen du errealtate soziala egituratzeko. Beraz, zer edo zer egin daiteke; horretarako, ordea, ideologiaren bestelako nozioa behar da: gaur egungo ideologiak Besteari³ leporatzen baitzaizkio. Arrazoi ideologikoak sinetsi ditzaten, herritarrek “egia ez-ideologikoak” direla pentsatu behar dute; politikarekin “zikindu” behar ez diren gauza sakratuak. Horiexek dira “ideologiaren objektu sublimeak”, erregimen politikoaren hitz nagusiak –Jainkoa, Erregea, Segurtasun Nazionala...–. Horien izenean subjektu ideologizatuak puska ditzakete arau moral arruntak, baita bizi eman ere. Eta gainera, ez dira gai izango azaltzeko zergatik diren objektu horiek sakratu, ez baitago funtsezko arrazoirik objektu bat, izan Jainkoa, Erregea edo Segurtasun Nazionala, sublimearen mailara igotzeko –izaera sublimeak, zerbait ezkutatzeotan, ezereza ezkutatzen du–. Ezintasun hori, ordea, ideologiaren hanka herrena izan ordez, sus-

Zizeken aburuz, zibilizazioak eskatzen du “*jouissance*”-aren sakrifizio fundazional bat –kastrazioa– lege soziopolitikoaren izenean. Legeak, ordea, Zizeken liburuetan, beti daude pitzatuta edo, gutxienez, zentzu bikoitza dute. Eta horregatik dio, eraginkorra izateko edozein erregimen politikok lege esplizituak, agerikoak, edukitzeaz gain, alde ilunago bat ere izan behar duela; idatzi gabeko arauak, “*jouissance*”-a erreprimitu ordez pertsonak inplikatu dituztenak, erruz beteriko gozamenean

trairik indartsuena da. Objektu sublimea tautologikoa denez –“Jainkoaren hitza, Jainkoaren hitza da”– subjektu ideologizatuari aukera ematen dio mundua ikusteko modu batera non, ezin esplikatzen hori den frogarik argiena erakusteko Jainkoa, Erregea edo Segurtasun Nazionala zein garrantzitsuak diren.

“*Jouissance*”-a eragile politiko modura

Filosofo esloveniarraren beste aspektu interesgarrietako bat Lacanen “*jouissance*” kontzeptua teoria politikoa erabiltzeko duen modua da. Lacanen baitan “*jouissance*”-a plazera da, gozamen sexuala, publikoki hitz egin daitekeenaren mugan dagoen atsegin transgresiboa. Bada, Zizeken aburuz, zibilizazioak eskatzen du gozamen horren sakrifizio fundazional bat –kastrazioa– lege soziopolitikoaren izenean. Legeak, ordea, Zizeken liburuetan, beti daude pitzatuta edo, gutxienez, zentzu bikoitza dute. Eta horregatik dio, eraginkorra izateko edozein erregimen politikok lege esplizituak, ageriko-

²Zizek, Slavoj (1989): *The Sublime Object of Ideology*, London: Verso.

³Bestea, B larriz, kontzeptu lacaniarra da hemen: psikoanalista frantsesak termino hori erabili zuen “bestetasun erradikala” izendatzeko. Bestea subjektua da, eta era berean, subjektu horrekiko harremana baldintzatzen duen ordena sinbolikoa.

ak, edukitzeaz gain, alde ilunago bat ere izan behar duela; idatzi gabeko arauak, “*jouissance*”-a erreprimitu ordeztu pertsonak inplikaturako dituztenak, erruz beteriko gozamenen.

Idea hori hobeto azaltzeko interesgarria da adibide zehatzetara jotzea. Har dezagun AEBetako Yale unibertsitatea. Munduko akademia prestigio-tsuenetakoa da, oso elitista kideak aukeratzeko orduan (han ikasi gura dutenetatik %10 baino gutxiago onartzen dituzte), eta handik ateratzen dira herrialdea, mundua gobernatuko duten pertsonetako asko. Oinarri horiekin, pentsatzekoa denez, lege eta ohitura kontserbadoreko instituzioa da. Horregatik, zaila egiten da “*jouissance*” kontzeptua ezagutu gabe zera ulertzea: 1823tik Yalen bertan badagoela elkarrekin sekretu bat, Skull&Bones, eta elkarrekin kide izateko iniziazio-erritoak manera kristau-protestanteen antitesia direla. Robert De Niroren *The Good Shepherd* (Artzain Ona) filmean azaltzen dira errito horietako batzuk, Matt Damonen pertsonaiak, elkarrekin sartzeko beste gazte batekin biluzik borrokatzen duenean, elkarrekin kideek pixa egiten dieten bitartean.

Adibidea gizarteko esparru askotara estrapolatu daiteke. Klaxe batzuk aipatzearen: apaiz pedofiloak; egunez banketxe batean lan egiten duen gizon errespetagarria, gauez sado-masokismoa praktikatzen duena; gerruntze gorria jantzita larrua jotzen duen egunkariko zuzendaria... Kanporako diskurtso bat dago, gozamina erreprimitzen duena arauaren mesedetan; barrurako beste bat, plazer lohienak ahalbidetzen dituena; eta biak dira ezinbestekoak komunitatearen kohesiorako.

Lege berriak noizbait erditu

Beraz, Zizekek azaltzen duenez edozein legek bilzen du legea hausteko aukera ere. Sistema politiko-ideologikoez ezin dute saihestu kontraesan horretan erortzea, eta ez dute egiten. Gainera, ez da ahaztu behar lege berri bat sortzeko ekintza legez kanpokoa dela⁴. Horren ondorioz, fantasia beharrezkoa da ekintza hori berriz kontatzeko, narratibizatzeke, historikoki legezko ekintza bihurtuz –Espainiako post-frankismoaz hedabide nagusietan egiten diren berrirakurketek eman dezakete adibide sorta ederra ideia hau ilustratzeko–. Hala ere, edozein erregimen politiko saiatzen bada bere sorrera azaltzen mito politiko batekin, eta saiatze horretan ukatzen badu sorrerako oinarriko, legez kanpoko

Marxen “ideologia” kontzeptuarekin kritikoa azaltzen da Zizek *The Sublime Object of Ideology* liburuan. Esloveniarrak uste du, gaur egungo gizartearen joera zinikoak alferrikako egiten duela ideologiaren kritika tradizionala. Ideologiak ez du benetako errealitate soziala ezkututzen; errealitate soziala egituratzen du fantasia ideologikoa

biolentzia, erregimen hori gezurretan ari da Zizeken aburuz.

Nola ezagutu ordea sorrerako indarkeria hori? Zein da bidea erregimen politikoak biluzteko? Zizeken lan teorikoaren zati handi batek galdera horietara bideratzen du, haren ustez aldaketa politikoa desiragarria baita. Esloveniarrak galderei ematen dien erantzuna “fantasia zeharkatzea” da. Maiz hitz egiten du kontzeptu horretaz, baita “Ekintzaz” (E larriarekin) ere. Eguneroko ekintzak ez dira gai baldintza soziopolitikoak aldatzeko; “Ekintza”-k aldiz, “Erreala”⁵ ukitzen du, eskua sartzen du erregimenak politikoki erreprimitu eta publikoki aitortu ezin duen horretan eta, hori eginez, sistema politikoa arriskuan jartzen du.

Kultur-aniztasuna eta euskaldunak

Kontzeptu horiek abiapuntu, baita hemen garatzerik ez dugun beste zenbait ere, Zizeken azken urteetako lana gai zehatzagoetara hurbildu da. Irakeko inbasioa, kultur-aniztasuna, tolerantzia, arrazakeria, giza-eskubideak, globalizazioa, iraultza... ikuspuntu probokatzailerik landu ditu, mundu osoko irakurleak kordokan jarriz. Haren liburu eta artikuluen tituluei begiratzea besterik ez dago: *A Plea for Leninist Intolerance* (Intolerantzia leninista

⁴Bertold Brechten esaldi bat aitatzen du Zizekek hori azaltzeko: “Zer da banku bat lapurtzea, banku bat sortzearekin alderatuz gero?”.

⁵“Erreala” ere kontzeptu lacaniarra da: sinbolizatu ezin dena adierazten du; iritsi ezinezko nukleo traumatiko bat.

erreguka), *Everything You Always Wanted to Know About Lacan... But Were Afraid to Ask Hitchcock* (Lacani buruz beti jakin nahi izan duzuna... baina Hitchcocki galdetzen ausartu ez zinena), *Iraq: The Borrowed Kettle* (Irak: maileguan hartutako lapi-koa), *Neighbors and Other Monsters* (Bizilagunak eta beste munstroak)...

Horietatik zipriztinen bat bakarrik har dezakegu. Kultur-aniztasun postmodernoari buruz esandako-ei helduko diegu, Euskal Herriko testuingurutik eztabaida interesgarrietarako parada eskaintzen duelako:

“Erraza da subjektu migrante postmodernoaren izaera hibridoia txalotzea, sustrai etnikorik gabe eremu kultural anitzetan barrena dabilena. Zoritarrez, bi plano politiko-sozial erabat diferente nahasten dira: batetik, unibertsitateko lizentziatu kosmopolita (...) bestetik, langile pobre (im)migrantea, bere herritik egotzia pobreziaren edo biolentziaren erruz”⁶.

Langile pobrearentzat hain traumatikoa den esperientzia migrantea ospatzea oso ariketa zini-koa da, Zizeken ustez. Eta, ez al gara euskaldunok askotxo erortzen ari horretan azkenaldian? Gure musikari batzuek nomadatzat jotzen dute beren burua; oporretan “Euskaldunak munduan eta Ikurriña eskuan” ibiltzeko eskatzen du elkarte abertzale batek; boladan dago euskal berezitasuna munduan zabaltzea, gastronomiaren bidez, kirolaren bidez, literaturaren, dantzaren, festaren bidez. Zizekek dio horiek jarrera “tolerante kultur-anitzak” direla, funtsezko galdera, (“nola berrasmatu espazio politikoa gaur egungo globalizazio baldintzetan?”) saihesten duten portae-rak.

Torlojuak apur bat gehiago estutuz, Euskal Herriko “elkarbizitza arazo”-raino iritsi gintezke esloveniarraren eskutik. Ion

Jimenezek eta Andoni Olariagak iritzien atalean sakonago landuko duten arren, merezi du Zizekek *Violence* (Biolentzia) liburuan jartzen duen itaunari luparekin begiratzea: “Gaur egungo hainbeste arazo zergatik sumatzen dira intolerantzia arazo balira bezala, eta ez esplotazio edo bidegabekeria gisa? Zergatik da proposatzen den erremedioa tolerantzia, eta ez emantzipazioa, borroka politikoa, baita borroka armatua ere?”.

Zalantzarik gabe, eztabaidatzeko moduan aurkezten ditu gaiak Zizekek. Eta haren eragina euskal pentsalarien lanetan ere agertzen hasi da. Imanol Galfarsororen *Subordinazioaren kontra* (Pamiela, 2009) saiakeran edo Joseba Zulaikaren *ETAren hautsian* (Alberdania, 2006) esloveniarraren pentsamen-dua han-hemenka azaltzen da, tesi arras diferentek defendatzeko. Ez dira, ziur, azkenak izango Ljubljana hartz gorriaren argudioak erabiltzen. ■

⁶Slavoj Zizek (2009): *En defensa de la intolerancia*, Madrid. Sequitur





Markos Zapiain*

Zizek eta tentsio etnikoak

Nondik nora bultzatu zuen Slavoj Zizekek Arnaldo Otegi eta Alfonso Sastrearen Iniziatiba Internazionalistaren aliatu Izquierda Internacionalista, Europako azken hauteskundeetan?

Zizeken iritziz, borroka askatzaileen artean komunismoaren aldekoari eman behar zaio lehentasuna, kapitalismoaren eta demokrazia liberalaren aurkakoari, multikulturalismoaren, feminismoaren eta giza eskubideen aldekoen gainetik. Gurean orain dela zenbait urte esango genuen klase borrokak nazio borrokaren gainetik behar lukeela. Multikulturalismo postmodernoa globalizazio kapitalistaren osagarritzat du Zizekek. Ez da egia hanburgerrak eta Coca-Cola etengabe irensetera behartzen gaituela. Globalizazioaren funtsa hobeki azaltzen du New Yorken bezala Parisen ere aurki ditzakezun afganistandar eta euskal jatetxe mordoak. Globalizazioak primeran kudeatzen du kultura diferentzia, aitzakiazat baitarabil benetako gatazka geroratzeko, alegia, kapitalismoak eragiten duen milioika lagun bazerketa eta heriotza.

Alta, politika ekonomikoa irauli eta arrazionalizatzeko bidean globalizazioa berez ez da txarra, aldaketa sakonak erraz baititzake. Globalizazioak Espainia, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua bezalako estatuei erasango die; nazio estatu orain arte larderiatsu horiek Esloveniaren edota Estoniaren pare utziko ditu, eta horregatik dabilza hain uzkur aspaldion, globalizazioaren aurrean trikuarena egiten (testuinguru honetan, beti bezain

martinbero dabil frantses aunitz: euskaldunari elkartasuna eskatzera ausartu dira ingelesaren imperialismoari era eragingarrian aurre egiteko, hots, euskara ahantzirik eta frantsesez mintzo).

Esloveniarrak da Zizek. Inguruko herrietako zurrumurruek arabera, berekoia eta bekaiztia da esloveniarrak. Behin batean, maitagarri batek base-rritar esloveniar tipiko bati esan omen zion eskatzeko nahi zuena, ase egingo zuela; hori bai, auzoko baserritarrari aurrenekoari halako bi egingo zion, mesede berdina baina bikoiztuta. Orduan aurrenekoak maitagarriari: “Ken iezadazu begi bat”.

Montenegro maiz astintzen dute lurrikarek, eta, esloveniarraren esanetan, alfer galantak dira montenegroarrak; hainbeste non mutilak, masturbatzeko, lurrean zulotxo bat egin, zakila bertan sartu eta hurrengo lurrikararen zain gelditzen baitira.

Titoren garaian Jugoslavia barruko herri desberdinek barra-barra zerabiltzaten auzokoen aurka arrazakeriazko txiste gaizto eta lizunak. Zizekek ez du gutxien umore populista kutre hori. Tentsio etnikoak puztu egiten ditu autokontrol politikoki zuzenak eta aldiz bideratu eta baretu txiste gordinak eta esamesa maleziatsuak. Etnia desberdinen artean ezinbestean pizten diren tira-birak maltzurkeria horiek maiz kontatuta bilakatzen dira era-

mangarri. Itxura erasokorraren despit, gainera, normalean ez dira erabiltzen auzokoa benetan irain-zeko, baizik etor litekeen adiskidetasunaren oinarri eta akuilu gisa. Elkarbizitza helburu, halatan, kontua ez da txiste horien arrazakeria dela-eta sumintzea, baizik ironiaz zure gain hartzea txisteak adierazten duen klixea. Balkanetako gerra piztu bezain laster txisteak desagertu ziren.

1991n, Esloveniak, ordu arte Jugoslavian kokatua, serbiar gehiengoaren pean, independentzia aldarrikatu eta Jugoslaviatik alde egin zuen. Tariq Ali-k eta beste analista ezkeriar batzuek egoismoa leporatu zioten Esloveniari.

Lehentxeago, 1990ean, Habermasek esan zuen Eslovenia edo Kroazia bezalako errepublika “separatistek” (komatxo artean beti Zizekenean separatistak, euskaldun zein balkandar) ez zutela aski mami demokratiko estatu moderno subirano gisa irauteko. Topiko horren arabera, Jugoslaviako etnia guztien artean serbiarrena zen bere estatu propioa egikaritzeko gai zen bakarra.

Gero, 90eko hamarraldian aurrera, are Milosevic kritikari demokratek ere, serbiar nazionalismoa arbuiatzen zutenek, ustekizun horren berorren arabera jokatu zuten, alegia, Jugoslaviako errepublika ohi guztien artean Serbiak baizik ez zuela aski ganora demokratiko: Milosevic eraitsi ostean, Serbia independentea loratu eta estatu moderno bilakatuko zen; gainerako errepublika ohiak probintziakoegiak ei ziren beren estatu demokratiko bereiziei eutsi ahal izateko.

Zizekek dioenez, uste ustel horren azpian ezkeriarren artean bolo-bolo dabiltzan aurreiritzi eta dogma arriskutsuak ezkututzen dira: nazio txikiak ezin dutela benetako demokrazia moderno legez funtzionatu, eta, beren kabuz ibiltzen utziz gero, ezinbestean itzultzen direla komunitate itxi profaxista izatera.

Idea hauetan Zizekek Friedrich Engelsen ohar ospetsu baten oihartzuna ikusten du: nazio txikiak erreakzionarioak dira politikan, beren existentzia bera erreakzio hutsa baita, iraganeko hondakina. Aurreiritzi horiek “arrazakeria bihurkarizat” jotzen ditu Zizekek: bere burua moderno eta aurrerakoi ikusi ahal izateko bestea arrazista eta intolerantetzat jo beharra duen arrazakeria mota.

Zizekek Habermasi abertzaletasun konstituzionalaren kontzeptua asmatu izana egotzi dio, besteak beste. Ekarpen hori dela-eta, Aznarrek Habermas Espainiako filosofo ofizial izendatzea proposatu zuen. Hitzaldia egin zuen Madrilgo

Goitik behera egiten du bat Zizekek euskaldun separatistekin. Eta separatista hitza beti komatxo artean kokatuz apika aditzera eman nahi luke “separatista” izenak dirauen bitartean irudi lukeela bereizten den herriak lotura ikusgaitzak gorde behar dituela herri ordu arte menperatzailearekin; eta Zizekek ez lioke etnia agintari ohiari zentraltasun semantikoak adierazten ohi duen nagusitasun enpirikoa aitortu nahi

Parlamentuan eta Asturiasko Printzea saria eman zioten.

Zizekek dio: “Ez gaitu harritzen euskaldun ‘separatistek’ mesfidantzaz erreakzionatu izana, Habermasi ‘alemaniar nazionalista’ izengoitia jartzera heldu baitziren, aspaldiko argumentu ‘leninista’ berreskuratuz, hots, tentsio etnikoa bizi duen Estatu batean, identitate etnikoaren aurreko jarrera indiferenteak, itxuraz ‘neutroak’, estatuko kide guztiak hiritar abstraktu huts izatera mugatzeak, talde etniko ugarienari egiten diola praktikan mesede”.

Zentzu horretan, goitik behera egiten du bat Zizekek euskaldun separatistekin. Eta separatista hitza beti komatxo artean kokatuz apika aditzera eman nahi luke “separatista” izenak dirauen bitartean irudi lukeela bereizten den herriak lotura ikusgaitzak gorde behar dituela herri ordu arte menperatzailearekin; eta Zizekek ez lioke etnia agintari ohiari zentraltasun semantikoak adierazten ohi duen nagusitasun enpirikoa aitortu nahi. Independentzitzen den herria ugazabarengandik bereizten bada ere, azpimarragarriagoa da bere baitara datorrela bizitzera, hein batean noski.

Estatu nazio handiek herri txikiak biktima gisa baino ez dituzte maite izaten, errukigintzaren susta-

Edozein gisaz,
Slavojen
aholkua:
behin independentzia
erdietsirik, euskaldunok
gehiengoa izatean, ez dugu
Euskal Herriko gutxiengo
espainola erabili behar
haiek gu erabili gaituzten
bezala. Aintzat hartuko
dugu, lagun: ez zaigu
nekeza egingo gizabidetsu
eta zibilizatuagoki jokatzeari

tzaile: lagun diezaiegun koitaduei bizi-rik irauten, baina beti ere gure gidaritzapean, beren kabuz ezingo dute asmatu; edo bestela apaingarri folkloriko gisa, beren dantza eta hizkuntza zahar liluragarri eta ama-lurrari loturiko jakinduria holografikoarengatik. Ordea, ekimen politikoa beren gain hartu nahi dutenean berehala laido-tzen dituzte: egoista, terrorista. Haatik, ekimen politikoa bere gain hartzea, horixe izaki Zizekentzat herri txikiaren aurreneko betebeharrak etikoak.

Zizek ez da nazionalista; hain zuzen, Esloveniako politikan engaiatu zen Titoren osteko aroan hango botere osoa gera ez zedin nazionalisten esku. Hala ere, bere kabuz pentsatzen duen marxista kritikoa den neurrian, gogor kritikatu die mendebaldeko hainbat ezkertiarri, Kosovoko ezkerriari aurpegiratu izana independentzia lortzeko lanetan bere bihotz kolektibista traizionatu eta AEBen esku jartzea; Esloveniaren eta Kosovoren independentziaren alde egon da Zizek. Edozein gisaz, Slavojen aholkua: behin indepen-



Kosovoren independentzia ospatzen ari da goiko argazkiko gaztea. Zizek, nazionalista izan ez arren, Kosovoren independentziaren alde agertu izan da.

dentzia erdietsirik, euskaldunok gehiengoa izatean, ez dugu Euskal Herriko gutxiengo espainola erabili behar haiek gu erabili gaituzten bezala. Aintzat hartuko dugu, lagun: ez zaigu nekeza egingo gizabidetsu eta zibilizatuagoki jokatzeari.

** Filosofoa eta idazlea.*

Zizeken subjektu histerikoa



DANI BLANCO

Joseba Zulaika*

Gogoratzen naiz nola erantzun zidan Zizekek Renoko unibertsitatean. Hitzaldiaren aurkezpenean, egoera horietan ohi den bezala, gogoz goraipatu nuen “Lilublianako jigantea”. Bere erantzuna? “Horri kastrazio sinbolikoa deitzen zaio”. Gero sarritan ikusi izan dut hasierako goraipamenei berdin erantzuten diela: “honek aipatu duen Autore handi hori ez dut inolaz ere nire buruan errekonozitzen”.

Zizeken pentsamenduan sartzeko gai ugari har genitzake, baina “kastrazio sinbolikoa” beste edozein bezain aproposa da eta gaur egungo pentsamendu psikoanalitikoan guztiz nagusia. Zizeken erantzunak galdera hau dakar: Zer gehiago sinetsi, ordena sinbolikoaren maskara ala maskara daraman indibiduoaren benetako errealitatea? Geu ez garen zerbait maskaratu hori eraman behar dugunean, Beste Nagusi horren izenean jokatu behar dugunean, ez gara geu benetan, Beste norbaiten ordezkioak baizik. Ni neu gizajoa izango naiz, baina nire semearen aurrean aita ahalguztidun baten papera egin behar badut, aita hori ez da ni benetakoa, aita hori Beste Nagusi bat da. Ordezkatze horren ordaina da “kastrazio sinbolikoa”: neu naizena ukatuz gero izan naiteke ordezkari altu hori (semearen edo gizartearen edo aberriaren edo jakitearen izenean) psikoanalisi lacania-

rraren erdi-erdian dago nozio konplexu hau. Faloaren errepresentazioarekin zuzenean loturik dago, jakina: faloa ez gizatasunaren ugaltze organo bezala, maskara bezala baizik; ikur bezala, eta azkenean, kastrazioaren seinale bezala. Naizenaren eta errepresentatzen dudaren arteko zulo hori, ebaki hori, hutsune hori da kastrazioa. Faloaren maskara da azkenean nire boterearen eta inpotentziaren seinale.

Jenny Holzer-ek badu tira famatu hura: “Babes nazazu desio dudanetik”. *Impasse* histerikoaren esaldia da, Zizekek azaltzen duen eran: “Histeria gertatzen da subjektu batek bere nortasun sinbolikoa arazotan jartzen duenean edo harekin desegoki sentitzen hasten denean”¹. Athletic-eko jokalaririk, lau eta bat Valentzian galdu ondoren, Bilbon “txapeldun” bezala jendetzak onartzean, “baina zer egin dugu, galtzeaz aparte?” dionean, *impasse* his-

¹ Slavoj Zizek, *How to Read Lacan* (New York: W.W.Norton, 2006), 35.

Euskal errealitatea aztertzeko guztiz lagungarri aurkitzen dut nik Zizeken obra. “Ez dago Beste Nagusirik”, edo “Emakumea ez da existitzen”, edo “Gozatu zeure nazioa zeu bazina bezala”, edo “Kolpatu zaituen ezpatak sendatuko du zauria”, eta antzekoak, ezin esanguratsua gertatzen dira euskaldunontzat. Gure desio politikoari, adibidez, nahitaez Beste Nagusietan mugiezinki finkatua dagoenari, Zizekek zuzenki proposatuko liokeena hauxe da: “Babes gaitzazu gure desiotik”

terikoa sentitzen ari da. Edo bertsolari txapelkunak hurrengo txapelketan galtzea nahiago duenean, bere txapelkun pertsona sinbolikoarekin hain gustura ez dagoelako, batera joan behar duenean irabaztera eta galtzera, histerizatua dago jada. Euskaldunok *impasse* histerikoan oso harrapatuak gaudela esan genezake: euskaldun izateak exijitzen diguna (euskarak, kulturak, salbuespen guztiek), gure berezitasunek, sinbolikoki hain nortasun aparta lantzerako behar gaitzakete; hainbestera piztu dezakete gure desioa, pisu izatera irits daitezkeela, normaltasun gehiago nahi izateraino, txapel handiegia ez ote den anibalentzia histerikoa sentitzeraino. Agian Jenny Holzer-ek Bilboko Guggenheimeko tiran, daukanaren ordean beste honako hau jarri behar zuen: “Babes gaitzazu Euskal Herritik”.

Lacanengandik jasotako esaldi bitxi ugarien inguruan Zizekek liburu osoak idatzi ditu. Esaldi hauetako zenbait: “Ez dago Beste Nagusirik”; “Ez dago harreman sexualik”; “Jainkoa hilda dago, baina Berak ez daki”; “Goza ezazu zure sintoma!” Azaleko txiste, zine eta beste erreferentzia ezagunekin batera, modernia pentsamendu filosofikoa sustraitik ezagutzen du gure autoreak. Lacan, Hegel eta kultura herrikoi amerikanoa uztartuz, obra emankor eta probokatiboa osatu du. Badiou eta Zizek biak altxatu dira gaurko pentsamenduan filosofo eta antifilosofo aitzindariak, borroka berdinean gaurko pentsamendu moderno eta humanistaren aurka, baina euren artean diferentzia nabariekien.

Zizeken pentsamenduaren berezitasuna atxikitzeotan, oinarrikoa da lehenik argitzea zein nozio duen subjektuaz. Badiouren subjektuarekin, adibidez, desberdintasun nabariak ditu. Zizeken subjektua funtsean, behin eta berriro aipatzen duen bezala, lacaniarra da. Hau da, unibertuala eta partikularren arteko hutsune ontologikoa besterik ez da, bien artean erabaki ezinezkoa, eta egoera horretatik ezin da zuzenki Egia bezalako zerbait atera. Ontologikoki erabat osagabeko errealitateak subjektuaren laguntza kontinentea behar du nolabaiteko konsistentzia lortzeko. Baina, erantsiko du Zizekek, “hemen, hala ere, baztertu beharreko arrisku handia subjektua ekintza bezala ulertzea da, keinu bezala, geroago hutsune ontologiko hori betetzeko parte hartzen duena, eta behin eta berriro esan beharrekoa subjektibotasunaren etengabeko kate menderaezina da [...] ‘Subjektibotasuna’ zirkularitate menderaezin horren izena da, ez kanpoko indar baten erresistentzia borrokatzen duen botere bat, erabat berezkoa duen barne-oztopo baizik, azkenik subjektua bera horixe besterik ez ‘da’². Inkontzientean oinarriturik dagoen subjektu hau, “bere ezintasunarekin bat da; ez ‘da’ ezer bere errepresentazioen porrotak irekitzen duen hutsa besterik”³.

Badiourentzat, aldiz, subjektu bilakatzea gerta-kizun berezi baten ondorioa da, non hizkuntzak ez duen zeregin pribilegiozkorik. Subjektuaren ezinta-

² Slavoj Zizek, *The Ticklish Subject: The Absent Centre of Political Ontology* (London: Verso, 1999), 158-159.

³ Slavoj Zizek, *The Sublime Object of Ideology* (London: Verso, 1989), 208.

suna egoera baten barnetik duen ezagutu ezina da funtsean. “Subjektuaren kausa bat identifikatu behar bagenu, itzuli beharko genuke, ez egiara batik bat, bere zeregina duena; ezta ere infinitura, zeinaren muga baita; gertakizunera baizik. Ondorioz, hutsa ez da jadanik subjektuaren itzaltea; izatearen aldetik dago, izatea halakoa baita bere herratzea egoeran gertakizunak iragartzen baitu, interbentzio bitartez”⁴. Egiaren historiarekin lotzen du Badiouk subjektua, honek egia behartu egiten du bere erabakiaren bitartez.

Subjektibotasuna eta unibertsaltasuna zehazki korrelatiboak dira bi pentsalarientzat. “Unibertsal’ bihurtzen naiz nire egoerako partikularitateetik desengaiatzeko egiten dudan ahalegin biolentoaren bitartez”⁵. Baina Zizekek ikuspegi askozaz pesimistagoa du gizakiaz. Badiouk subjektuaren interbentzioan sinesten du, benetako gertakizun batek harrapa lezakeela subjektua eta egoera bateko koordinadak aldatu. Zizeken ikuspegia beltzagoa da, azkenik pentsamenduaren zeregina errearen errekonozimendu eta kritika besterik ez izanik, onenean harreman terapeutiko bat beste gabe gertatuz⁶.

Euskal errealitatea aztertzeko guztiz lagungarri aurkitzen dut nik Zizeken obra. “Ez dago Beste



HENDRIK SPECK CC-BY-NC-ND

Alain Badiou filosofo frantziarra.

Nagusirik”, edo “Emakumea ez da existitzen”, edo “Gozatu zeure nazioa zeu bazina bezala”, edo “Kolpatu zaituen ezpatak sendatuko du zauria”, eta antzekoak, ezin esanguratsukoak gertatzen dira euskaldunontzat. Gure desio politikoari, adibidez, nahitaez Beste Nagusietan mugiezinki finkatua dagoenari, Zizekek zuzenki proposatuko liokeena hauxe da: “Babes gaitzazu gure desiotik”. Irakurketa bikoitza egin daiteke esaldi horretaz⁷: alde batetik, “babes gaitzazu kontrola ezin ditugun gehiegikeria auto-suntzitzaileetatik”; baina harago joanaz, gizarte patriarkal batean, adibidez, emakumearen desioa bera hain egon daiteke alienatua, bere benetako desiotzat daukana ere desio inposatua izateraino, eta orduan benetako liberazioa desioaren autonomia bera litzateke. Zizekek Lacanengandik eta Hegelengandik ikasi duen lezio mikatza horixe baita: azken batean desioak berak oztopatzen eta sabotatzen duela bere auto-liberazioa.

* Antropologoa eta idazlea.

Renoko (AEB) Unibertsitateko irakaslea


Badiou eta Zizek biak altxatu
dira gaurko
pentsamenduan filosofo
eta antifilosofo aitzindariak, borroka
berdinean gaurko pentsamendu
posmoderno eta humanistaren
aurka, baina euren artean diferentzia
nabariekin

⁴Alain Badiou, *Being and Event* (London: Continuum, 2005), 433.

⁵Slavoj Zizek, *The Plague of Fantasies* (London: Verso, 1997), 222.

⁶Ikus Peter Hallward, *Badiou, a Subject to Truth* (Minnesota: University of Minnesota Press, 2003), 150-151.

⁷Zizek, *How to Read Lacan*, 38-39.



Jon Jimenez eta Andoni Olariaga*

Zizek eta biolentzia

Zizek, desobedientzia zibila eta biolentzia izango ditugu hizpide artikulu honetan. Planteatuko ditugun galderak hauek dira: Zer da biolentzia politikoa? Zein biolentzia politiko da zilegi eta zein ez? Zein da biolentzia politikoaaren helburua? Zein da boterearen kontra erabil daitekeen biolentziarik efikazena? Desobedientzia zibila biolentzia al da? Abstentzio politikoa eraginkorra izan al daiteke? Galdera horiek ardatz hartu eta, Zizek bidelagun dugula, horiek nolabait erantzuten edo behintzat birplanteatzen eta argitzen saiatuko gara.

Zizekek diosku, bortxarik biolentzia sistema erabiltzen duena dela, zeren “biolentzia hau jada ezin egotz dakieke norbanako konkretuei eta euren asmo ‘maltzurrei’, baizik eta erabat ‘objektiboa’, sistemikoa, anonimoa da” (Zizek, 2008). Ezkutukoa den heinean, indarkeria mamu bat bezala txertatua dago gizakiaren erlazio-sistema guztietan, hau da, hizkuntzan, gizarte antolae-ran, lan-munduan eta abarrean. Ikusezin. Beraz, biolentzia guztia dela esaten du nolabait Zizekek. Hau da, giza harremanetan ez dago biolentzia ez den harremanik. Horrela, ekintza politiko armatu bat, *mobbinga* bezain biolentzia izan daiteke, tes-tuinguruaren arabera. Baina sistemak giza eskubi-deen talaiia metafisikotik ukatzen du hori, Zizekek dioskun bezala: “Hau da, beraz, giza eskubide

unibertsalen diskurtsoaren egia: giza eskubideen aterkiaren babespean daudenak eta ez daudenak bereizten dituen horma” (Zizek, 2005). Giza eskubideen defentsa gure eskubideen bermatzaile den estatuak egin behar du. Baina ez haiek predikatuz, aplikatuz baizik. Biolentzia zikina praktikatzea baita, bai biolentziaren monopolioa duen estatuak bere biolentzia ezkutatzea, bai monopolio hori erazteko erabiltzen den biolentzia disidentea giza eskubideen kontraktatzat hartzea. Hain zuzen, biolentzia politikoa, definizioz, ukatuak izaten diren giza eskubideak lortzeko borroka izan baita, eta ez horien kontra egiteko.

Jarraitu dezagun: “Batuetan ezer ez egitea egin daitekeen ekintzarik biolentzia da” (Zizek, 2008) diosku esloveniarrak. Horren atzean dagoen

Zizek ez da euskalduna, bestela aspalditik genuke kartzelan. Hala ere, tolerantziaz jantzia den eta sistema neoliberalaren biolentzia basatiena onartzen duen gizarte zibilari galdera bat luzatzen dio: “Zergatik uste dugu konponbidea tolerantzia dela eta ez emantzipazioa, borroka politikoa edota borroka armatua?”



Violence (2008) liburuaren ingelesezko edizioaren azala goian. Lan horretan esloveniarrak adierazi zuen maiz ezer ez egitea dela egin daitekeen gauzarik biolentoena.

idea hau da: ekintza bat biolentoa eta ez biolentoa izan daiteke, testuinguruaren arabera. Alegia, batzuetan ume baten irribarrea biolentoagoa izan daiteke biolentzia fisikoaren edozein adierazpen baino. Horren harira, paragrafoaren aitzineko ideia hartuta, abstentziorako deia egin digu inoiz Zizekek liberalismoaren kontrako gurutzadan. Berak diosku, ekintza *lokalizatu*etan aritzea sistemari berari lagungarri zaiola hobeto funtzionatzeko. Hau da, sistemak xurgatu egingo lituzkeela ekintza biolento politiko desberdinak, dela desobediencia zibila, dela borroka armatua. Horrela al da? Ezer ez egitea gauzarik biolentoena al da batzuetan? Testuingurura jo beharko dugu hori zehazteko, Zizeken ustez. Biolentzia politikoa (kasu konkreturen bat) benetan eraginkorra den esatea zaila suertatzen da, eraginkortasun hori begien bistara ezin baita ikusi askotan. Biolentzia politikoa efikaza denean, gobernuak bere posizioa moralki indartu dezan behartu egiten du (bizitza

sakratua da, biolentzia datorren lekutik datorrela txarra da –baina, berea ez?–), eta, horren ondorioz, gobernuaren zilegitasun politikoak behera egiten du: izan ere, disidentziaren kontra errepresioa areagotu behar izaten du, zilegi den indarkeria bakarra berea dela erakutsiz. Errepresioa tresna ez-demokratikoz burutzen du, disidentziarekin bukatzeko, baina horrela, bere zilegitasuna kolokan jartzen da.

Zizeken aburuz, abstentzioa litzateke biolentziarik eraginkorrena. Eraginkorra eta biolentoa

Zizekek zera aldarrikatzen du: mendebaldeko gizarte kapitalista kolonialistaren arma diren eta edukiz hustuta dauden demokrazia formalaren eta giza eskubideen (eta haren predikatzailen) kontra egin behar du gizakiak, horiek sistemaren mozorro zilegitzaile diren heinean.

izan al daiteke abstentzioa? Printzipioz, abstentzio altuak ez die hauteskunderi zilegitasunik kentzen. Begiratzea besterik ez dago gurean Konstituzio Espainolak izan zuen abstentzio maila altua. Sistemak erraz xurgatzen du abstentzio politikoa. Eta beraz, badirudi eraginkorragoa litzatekeela Zizeken abstentziorako proposamena (berak duen) desobediencia zibilaren proposamenarekin ordezkatea.

Biolentziaren zilegitasunaren problemarik ez dauka pentsalari esloveniarrak. Ez dugu bera moralista merke horietako bat. Sistema neoliberalaren kontra altxatzen den biolentzia politikoa oro jotzen du zilegitzat, printzipioz. Dela identitate arazo, kolonialismo, justizia sozial eta abarren inguruko borroka. Berak argi du, "legean ez erakitzen ez sostengatzen den biolentziaren eremua maitasunarena da" (Zizek, 2008). Zizek ez da euskalduna, bestela aspalditik genuke kartzelan. Hala ere, tolerantziaren jantzia den eta sistema neoliberalaren biolentzia basatiena onartzen duen gizarte zibilari galdera bat luzatzen dio: "Zergatik uste dugu konponbidea tolerantzia dela eta ez eman-tzipazioa, borroka politikoa edota borroka arma-tua?" (Zizek, 2008). Hortxe galdera bikaina. Mozorroek ez dute balio, sistemaren jukutria dira. Ilustrazioaren eta demokraziaren apologistak ere beren ideia formal hutsekin ez digute balio. Argi dio esloveniarrak: "diktadura' terminoa demokra-

zia ere diktadura forma bat denaren zentzu zehatzean erabili beharko litzateke, hau da, determinazio formal hutsa bezalako zerbait" (Zizek, 2007). Paper hutsean geratzen diren *wet paper* demokraziak eta giza eskubideek ez digute balio. Zizekek zera aldarrikatzen du: mendebaldeko gizarte kapitalista kolonialistaren arma diren eta edukiz hustuta dauden demokrazia formalaren eta giza eskubideen (eta haren predikatzailen) kontra egin behar du gizakiak, horiek sistemaren mozorro zilegitzaile diren heinean.

Hori guztia esan eta gero, hau da pausatu beharreko galdera: zein da biolentzagoa, indarkeria ezkutuan erabili eta giza eskubideak predikatzen dituen hori, ala biolentzia zuzena (desobediencia, armatua...) erabili eta elkarriketarako deia luzatzen duen hori? Alegia, zein da biolentzagoa, estatuaren biolentzia darabilen eta hitz egin nahi ez duen hori, ala arazo bati soluzio bat bilatzea helburu duen biolentzia disidente hori?

Bibliografia:

- Zizek, Slavoj (2002): *Welcome to the Desert of the Real*, London: Verso.
 Zizek, Slavoj (2007): *Terrorism and Communism, A Reply to Karl Kautsky*. London; New York: Verso.
 Zizek, Slavoj (2008): *Violence*, London. Profile Books.

* *Filosofoak*. Modernitatearen auziaz (Jakín, 2010) liburuaren egileak

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefona:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.